

3. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure bezeroak ez daude gustiz zehaztuta, baina eskaintzen dugun zerbitzu hau erabili ahal izateko gutxieneko adin bat egongo da, 16 urte, lan egiteko beharrezkoa den gutxienezko adina baita. Zertan lan egin nahi duten ez dakitenentzat bideratuta dago, horregatik gehiengoak gazteak izango dira, ikasketak hamaitu dituztenak eta abar, 16-25 urte ingurukoak. Horrez gain, heldu batzuek ere interesa izan ahalko dute gure zerbitzuaz gozatzeko, 40 urtetik gorako jendea normalean jada lan bat izan arren, egon ahal dira adin horren inguruko pertsona batzuk ez dutenak. Azken finean, gure bezero guztiek amankomunean izango dute zertan jardun nahi duten ez jakinleria.

Hau guztia jakinda, gure zerbitzuaren kontsumitzaileak adin guztietakoak izan ahalko dira, nahiz eta gehien erabiliko dituenak gazteak izango, orokorrean haientzat bideratuta baitago.